



ATSAUREEN INGURUKO ARGAZKI ERAKUSKETA

Hilaren 13an zabalduko dute Aurrera elkarteak, 18:00etan; bideo emanaldia eta bilera ere aurreikusi dituzte >7

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Asteartea
2010-03-09**

VIII. URTEA 1947. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Villabonako Gureako erakusketa gelan, ostirala bitarte bisitatu daitekeen pintura erakusketa inauguratu zuten. E. MAIZ

ALDARRIKAPENAK NAGUSI EMAKUMEAREN EGUNAREN HARIRA

GIZARTEA Elkarretaratzeak egin zituzten herri askotan; Mundu Martxa, hala ere, ostegunean iritsiko da Tolosara eta ostiralean Leitzara 5

Mikel Lopetegi omendu dute Urkizu auzoan

TOLOSA 80 lagun inguru bildu ziren herenegun bere heriotzaren 22. urteurrena gogoratzeko 3

Gaur zabalduko dute Amarotzeko Merkatu Txikia Kultur Etxean

TOLOSA Nikaraguara bidaltzeko 9.000 euro bildu nahi dituzte 2



Caja Rural taldeko Victor de la Parte helmugan. SARA GOMEZ

Victor de la Partek irabazi du VII. Aiztondo Klasikoa

TXIRRINDULARITZA Eduard Pradesek egin zuen bigarren Zizurkil eta Asteasu arteko lasterketan 6

Asel Luzarraga eta Maputxe herriaren inguruko hitzaldia

TOLOSA Askapenak antolatu du bihar 19:00etan Kultur Etxean izango den jardunaldia 3

Mikel Lopetegi omendu dute Urkizun, bere heriotzaren urteurrenean

Politika » Duela 22 urte hilik aurkitu zuten espetxean; 80 lagun inguru elkartu ziren herenegun egindako omenaldian.

ERREDAKZIOA

Mikel Lopetegiren heriotzaren hogeita bigarren urteurrena dela eta, omenaldia egin zioten herenegun Urkizun auzoan. Duela 22 urte, Herrerako espetxeko bere ziegan hilik aurkitu zuten tolosarra. 80 lagun inguru elkartu ziren igandeko omenaldian.

Ekitaldian zenbait bertso abestu zizkieten omenduari eta aurrerakua dantzatu zuten Lopetegiri oroitzen duen monolitoaren aurrean. Omenaldiari amaiera emateko Amnistiaren Aldeko Mugimenduko kideek irakurketa politikoa egin zuten.

Torturaren Kontrako Taldearen arabera, duela 22 urte, Mikel Lopetegiren gorpua Herrera de la Mancha espetxean agertu zen. Orduko polizia iturrien arabera, ziegako zisternara lotutako maindire bategatik zintzilikatuta urkatu omen zuen bere burua. 30 urteko espetxe-zigorra betetzen ari zen preso.

Espetxe politika

Amnistiaren Aldeko Mugimenduko beste behin ere gogor salatu zuen gaur egungo espetxe politika; honen arabera, «Lopetegiri erail zu-



80 lagun inguru elkartu ziren Urkizun, Lopetegiren omenezko monolitoaren aurrean egindako ekitaldian. E. EZEIZA

ten espetxe politika ankerrak, preso dauden senide eta lagunak jasaten jarraitzen dute gaur egun ere».

Azken egunetan ematen ari diren gertakariak izan zituzten hizpide, «hauek erakusten baitute, Euskal Preso Politikoen Kolektiboaren aurkako jazarpenek ez dutela etenik». AAMren iritziz, «azken mugimenduek», kolektiboa zatitu eta ezabatzea dute helburu. Hala, argi dute, espetxeek hartutako neurriek «ondo marraztutako bide bati erantzuten diotela, presoak pertsona bezala suntsitzea xede duen bide bati».

Honekin batera «sakabanaketa, gaixotasun larriak dituzten presoak espetxean mantentzea, biziarteko zigorra eta ba-

kartzete politika bezalako neurrien asmoa da euskal preso politikoak muturreko egoerara eramatea», gaineratu zuten.

Eskualdean azken egunetan emandako «erasoen» inguruko iritzia ere plazaratu zuten, eta «adierazpen askatasunaren aurka Ertzaintzak darabilen bortizkeria eta jarrera errepresibo» salatu zuten, baita, indarrean dagoen espetxe politika «kriminala».

Ekitaldiaren amaieran, aurrera begira, «salaketa eta duintasunaren bidetik», Euskal Herriko gehiengo osatzen duten eragile sozial eta sindikalekin batera lanean jarraitzeko asmoa agertu zuten eta euskal presoek eskubideak

errespetatuak izango diren «egunsenti berri baten bila» jarraitzeko konpromisoa ere nabarmendu zuten.

Iaz, debekatua

Iaz ere, euskal presoaren omenezko ekitaldia antolatuta zuten Urkizun, baina Triangulo plazan mendira joateko bilduta zeudela Ertzaintza gerturatu zen ekitaldia debekatuta zegoela esatera. Jende multzo batek, hala ere, Urkizuko bidea hartu zuen eta bertan omenaldia egiteko erabakia hartu. Baina Ertzaintzak galarazi egin zieten, berriz ere. Honen ondorioz Lopetegitarren baserri batean egin behar izan zuten omenaldia.



Hilaren 27an izango da kantu jira. E.M.

Tolosa Kantariko entseguak izango da bihar Udala Musika Eskolan

ERREDAKZIOA

Tolosa Kantarik antolatuta, kantu entseguak egingo dute bihar, Musika Eskolan (Gorosabel Zaharrean), 20:00etatik aurrera. Baina hau ez da hil honetan egingo dute entsegu bakarra, hurrengo hilaren 24an izango baita. Hilaren 27ko abestiak kantatuko dituzte bertan, Evaristo Elduairen eta bere laguntzaileen gidaritzapean.

Antolatzaileen hitzetan, «ateak zabalik daude parte hartu nahi duten guztientzat». Hil honetako Tolosa Kantari kantu jira martxoaren 27an izango da. Ohi bezala, Tontokalen elkartuko dira 12:00etan, eta 14:00ak aldera arte Alde Zaharreko kaleetatik barrena ibiliko dira, euskal abestiak kantatuz. 2008ko ekainean jarri zuten martxan ekimena, eta gero eta jende gehiagok hartzen du parte hilabetetik hila-betera.

Asel Luzarraga eta Maputxe herriaren inguruko hitzaldia izango da bihar

Gizartea » Askapenak antolatuta, euskal idazlearen egoera izango dute hizpide; 19:00etan Kultur Etxean izango da.

ERREDAKZIOA

Askapenak antolatuta, Asel Luzarragaren bahiketari buruzko eta Maputxe herriaren egoeraren inguruko hitzaldia izango da bihar. Kultur Etxeko areto txikian izango da jardunaldia, 19:00etan.

Euskal idazlearen egoera larrian aurkitzen da

2009ko abenduaren 31ko arratsaldean, lehergailu bat aurkitu zuten Txileko La Araucania eskualdeko Justizia idazkaritzan. Atentatuak huts egin zuen, gailuak ez zuten leher egin, detonazio mekanismoan huts egitea izan zuelako.



Asel Luzarraga 2009ko abenduan atxilotu zuten. HITZA

Hau gertatu eta ordu batzuk beranduago Asel Luzarraga euskal idazlea atxilotu zuten Padre Las Casas-en, bera bizi den hirian, atentatuaren egilea bera zela leporatuz. Cristian Dulansky Araya-k, Txileko La Araucania eskualdeko Cautin probintziako gobernadoreak, kereila bat jarri zuen Luza-

rragaren aurka Txileko Berme Epategian, epaileak onartu egin zuen auziaren hasieran. Atxilotutakoan, bere etxea miatu zuten eta iturri ofizialek diotenez, bertan, su-itxalgailu bat, bolbora eta metxa bat aurkitu zuten.

Luzarraga atxilotzeko aurreko lan guztia eginda zegoela eta bere

den Temuco-ko Berme Epaileak, Marcia Castillo Monjes-ek, eskaera hau onartu zuen.

Prebentzio-espetxealdi hau 2010eko urtarrilaren 6ko goizeko hamarretan bukatzen da Txilen, Euskal Herriaren eguerdiko ordu biak izango lirake. Momentu honetan Luzarragari 2008ko abendutik 2009ko abendura bitartean antzeko lehergailuekin burututako lau atentatuekin zerikusia izatea leporatzen diote, baina ez inolako kargu zehatzik.

etxean aurkitutako guztia peritatu behar zela argudiatuz, Omar Merida fiskala Txileko lege antiterroristaz baliatu zen euskal herritarra 5 egun gehiagoz prebentzio-espetxealdian izateko eskatzeko. La Araucania eskualdeko eta honen Cautin probintziako hiriburua



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Wukro herriari lagunduz

Berastegi » Muñagorri eskolakoek elkartasun azokan bildutako dirua Etiopiako herrira bidaltzea adostu berri dute.

ERREDAKZIOA

Badira hiru urte Berastegiko Muñagorri eskolak Agenda 21en hartzen dutela parte. Lehenengo ikasturtean hondakinen inguruan aritu ziren eta ia ez ekitea landu zuten.

«Bigai hauek uztartuz, ia Ingurumen Batzordean, gabonak baino lehen, bigarren eskuko azoka bat antolatzea erabaki genuen. Helburua soberan edo erabiltzen ez ditugun gauzei etekina atera eta erabilpen berri bat ematea izanik», argitu dute eskolako arduradunek. Orduan ere azokan ateratako dirua «helburu solidarioa» batera bideratuko zutela argitu zuten, nahiz eta ez zuten helburua zehaztu. Orain ordea erabaki dute dirua nora bidaliko duten: Wukro izeneko Etiopiako herria.

Uraren Astea izan zuten hilaren 1tik 5era

Aurten ura da lantzen ari diren gaia. Aurreko astean, hilaren 1etik 5era, hain zuzen ere, Uraren Astea izan zuten eta uraren inguruan hainbat tailer eta jarduerak burutu dituzte.

«Asko ikasi dugu eta ikasten ari gara uraren inguruan zentzuz eta irudimenez jokatzeko konpromisoak hartzeko (ahalik eta ur gutxi gastatu, erabiltzen duguna ahalik eta gutxi zikindu...)\», nabarmendu dute.



Haurrek 'Wukro eta ura' bideoa ikusteko parada izan dute. HITZA

Aste horren baitan Etiopiako Wukro herria ondo ezagutzen duen Oihana Orkolagaren bisita ere izan dute, *Wukro eta ura* bideo emanaldia ikusteko aukera ere izan dutelarik. «Oso interesgarria izan da eta gauza asko ikasi ditugu: hemen, gu bizi garen tokian, ur asko daukagula eta gure beharretarako ura lortzea erraza zaigun arren, badakigu toki guztietan ez

dela horrela. Bideoan ere argi ikusi genuen hori», argitu dute.

Bideoa ikusi eta gero Orkolagak ikasleengaldereri erantzun zien eta guztien artean konpromiso bat ere

Urtero, Gabonak aurretik, bigarren eskuko azoka egiten jarraituko dutela erabaki dute

Jasotzen duten dirua Wukron gauzatzen dituzten proiektuetara bideratuko dute

hartu zuten: «urtero, Gabonak aurretik, bigarren eskuko azoka egiten jarraituko dugula eta bertan ateratako dirua Etiopiako Wukro herrira bidaliko dugula, bertan bultzatzen dituzten hainbat proiektutan gure laguntzatxoa ere izan dezaten».



Gaztetxoak ere zuhaitzak landatzen

ALEGIA » Larunbatean izan zuten Zuhaitz Eguna Tolosan, baina Alegian egun bat aurreratu ziren. Ostiralean ospatu zuten eguna Alegiako gazteek, hortaz. Aralar institutuko ikasleek 50 haritza landatu zituzten Langaurren eta San Joan ikastetxeko gazteek aldez, 12 pago eta 10 bat kame-lia landatu zituzten Larraitx auzoko bidean. HITZA

Haurrentzako olerki liburua argitaratu dute

Haur literatura » Txori kantariak poeta hegalaria lanak 13 olerkigileren lanak biltzen ditu, tartean Linazasoro eta Igerabide.

ERREDAKZIOA

Elkar argitaletxeak haurrentzako liburu berri bat kaleratu du otsailan. *Txori kantariak poeta hegalaria* du izena eta bertan olerkiak dira protagonistak. Izan ere, olerkien mundua haurren unibertsora gerturatzea da argitalpenaren helburuetako bat.

Guztira hamahiru olerkigile hartu dute parte liburu honetan, tartean Adunako Juan Kruz Igerabide eta Tolosako Karlos Linazasorok. «Hamahiru txoriren txiruliriak dituzu orrialde hauek, edo hamahiru poetaren hegaldiak», argitu du Elkarrek ohar baten bidez.

«Poeta hegalaria»

«Txoriak poeta direnean eta poetak txori, gauza ederra da kantuz hegan egitea. Ederra, baita ere, kantu hori entzutea, ikustea eta sentitzea», gaineratu du argitaletxeak.

Horiek horrela hauek dira liburuan euren ekarpen txikiak egin duten «poeta hegalaria»: Pello Añorga, Lutxo Egia, Juan Kruz Igerabide, Joan Mari Irigoien, Felipe Juaristi, Antton Kazabon, Miren Agur Meabe, Karlos Linazasoro, Joxan Ormazabal, Jon Suarez eta Kirmen Uribe.

Haurrentzako liburua izaki marrazkiek ere badute garrantzia lanean eta horretarako Elena Odriozola ilustratzaile donostiarraren marrazki ameslariak bildu dituzte.

Lana zortzi urte gorako haurrentzat da eta jada liburu dendentan eskuratu daiteke 8,25 euroren truke.

» FITXA

■ **Izenburua.** Txori kantariak poeta hegalaria.

■ **Egileak.** Pello Añorga, Lutxo Egia, Juan Kruz Igerabide, Joan Mari Irigoien, Felipe Juaristi, Antton Kazabon, Miren Agur Meabe, Karlos Linazasoro, Joxan Ormazabal, Jon Suarez eta Kirmen Uribe.

■ **Marraskigilea.** Elena Odriozola.

■ **Argitaletxea.** Elkar.

■ **Bilduma.** Kuku 39.

■ **Adina.** 8 urtetik gorakoak.

■ **Salneurria.** 8,25 euro.

■ **Orrialde kopurua.** 52.

PREST

m
MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

ATE IREKIAK

Gai Eskola Politikenak

ARRASATE-MONDRAGÓN
MARTXOAK 11 osteguna - 17:30

Enpresagintza Fakultatea

IRUN
MARTXOAK 25 osteguna - 18:00

Humanitate eta Hizkuntza Zientzien Fakultatea

ESKORIATZA
MARTXOAK 11 osteguna - 18:00

ARETO NAGUSIAN
etorri aurretik izena eman!

902 110 436 - www.mondragon.edu/prest

Tolosaldeko komunikabide batek

Kazetaritzan edota Euskal Filologian lizentziatuak edo ikasleak behar dituzte lan poltsa osatzeko.

Interesak gertu: 661 67 88 17



Tolosan, Triangulon elkarretaratzea egin zuten. ESTI EZEIZA



Larunbat gauean 40 lagun elkartu ziren afaldu eta ondoren dantzatzeko. HITZA



Iruran, Haur Txokoan, ipuin-kontalaria izan zen. E. MAIZ



Amezketan, herriko jubilatuek merienda egin zuten Arkaizpe tabernan. ASIER IMAZ



Anoetan, 'Emakumeak, isilpeko urteak' proiektzia eskaini zuten. E. MAIZ

Emakumearen Eguna aldarrikatuz

Gizartea » Asteburuan ospatutakoez gain, atzo Emakumearen Nazioarteko Eguna izanik, aldarrikapen ezberdinak izan ziren eskualdean.

ERREDAKZIOA

Azken aste eta egunetan, behin baino gehiagotan entzun eta ikusi ditugu Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira, aldarrikapen, mezu eta ekintza ezberdinak. Atzo emakume guztien eguna izan zen eta 2010. urtean bagaude ere, oraindik asko geratzen zaigu gizon eta emakumeon arteko berdintasunerari iristeko.

Bide luze eta gogorra da. Egun hau oroitutako beharra dagoen gizarte batean aurkitzen garenez, eskualdeko ia herri guztietan modu bateko edo beste ekitaldiak antolatuta dituzte. Askok eta askok, bazkari edo afari baten bueltan elkartu ziren, Alegian kasu. Atzoko egunez, elkarretaratzeak ez ziren falta izan: Amezketan, Alegian, Ikaztegiatan, Leitzan, Tolosan, Villabonan...

Iruran, *Aurorita beti polita* ipuin-kontalaria izan zuten Haur Txokoan. Anoetan berriz, udal txoan *Emakumeak, isilpeko urteak* proiektzia ikusteko aukera izan zuten. Amezketan, lehenik eta behin, jubilatuek merienda izan zuten Arkaizpe tabernan. Iluntzean, elkarretaratzea egin zuten eta Guraso elkarteak antolatuta, sagardotegira ere joan ziren afaltzera. Leitzan, elkarretaratzeaz gain, goizez Amazabal institutuan *Gona gorontzak* bideo emanaldia izan zuten. Villabonan berriz, emakumeen inguruko pintura erakusketa inauguratu zuten, eta aste osoan zehar arratsaldetan ikusgai egongo da. Zizurkilgo Kultur Etxean ere, herriko emakumeek egindako esku lanen erakusketa inauguratu zuten.

» ASTEAN ZEHAR IZANGO DIREN EKITALDIETAKO BATZUK

Albiztur

■ **Martxoak 12, ostirala.** 21:00etan, afaria Tolosako Amets jabetxean. Ondoren Jone Gorostartzu eta Olatz Etxeberriaren bakkarrizketa. Izena udaletxean, osteguna baino lehen.

Altzo

■ **Martxoak 11, osteguna.** Sexuari buruzko *Bost zentzumenen indar erotikoa* tailerra udaletxeko ekin-tza aretoan 19:30ean Nerea Sanchez psikologo eta sexologoaren eskutik. Hitzaldira joateko izena ematea komeni da aldeaz aurretik.

Irura

■ **Martxoak 13, larunbata.** Film emanaldia gaztelekuan. 20:30ean afaria eta dantzaldia Zaharren bil-tokian 15 euroren truke.

Leitza

■ **Martxoak 12, ostirala.** 18:30ean txokolatada plazan eta egun guz-

tian zehar eskualdeko aldarriak bilduko dituen murala pintatuko dute plazan. Arratsaldean, herriko haur eta gaztetxoek murala mar-gotuko dute. 20:30ean ailegatuko da Mundu Martxa Leitzara, eta harrera ekitaldia egingo da. Herriko plazan dantzariak, Jeiki Abesbatza eta bertsolariak izango dira. Honez gain, testigantza liburua osatuko dute herriko emakumeen aldarrikapen ezberdinekin. Ondoren, Atekbeltzan afaria egingo dute. Sarrerak Torrean eta Gaztañagan daude salgai 10 euroren truke eta bihar da erosteko azken eguna. Gauean, kontzertuak egingo dira: *Komo tu* eta talde sorpresa.

Tolosa

■ **Gaur.** Tolosako HHI-EPAK eta Ikasleen Elkarteak antolatuta Rosa Temiñoren eskutik *La mujer Palestina* hitzaldia izango da 16:00etan.

■ **Martxoak 11, osteguna.** Emakumeen Mundu Martxari ongietorria

18:00etan Zerkausion. Ekitaldia eta merienda izango dira.

Ugarte

■ **Martxoak 13, larunbata.** Bazkaria egingo dute Ugarteko elkartearen 13:30etan. Izena emateko azken eguna hilaren 10a da.

Villabona

■ **Erakusketa.** Pintura erakusketa, Gurea Zinemako erakusketa gela. Ostirala bitarte eguneroko egongo da 17:00etatik 20:00etara.

■ **Martxoak 13, larunbata.** 14:00etan Berdura Plazatik abiatuta trikipoteoa egingo dute. Ondoren, bazkaria eta dantzaldia izango dituzte Zizurkilgo Olentzo Jatetxean 14:30etik aurrera. 16 euro ordaindu beharko da.

Zizurkil

■ **Erakusketa.** Eskulanetan aritzen diren emakumeen erakusketa, Kultur Etxean.

KIROL EMAITZAK

PILOTA

Binakako Txapelketa

BIGARREN MAILA

Saralegi-Eskudero 22

Retegi Bi-Cecilio 15

Olazabal-Arruti 22

Arretxe II-Ibai Zabala 21

*FINALERDIAK, MARTXOAREN 12AN

Saralegi-Eskudero

Aritz Lasa-Merino

Olazabal-Arruti

Arretxe II-Ibai Zabala

Euskal Herriko Txapelketa

KADETEAK

Mugika-Iruretagoiena (Erniope) 10

Sagasti-Imaz 22

KADETEAK BANAKA

Artola (Intxurre-Alegia) 18

Apeztegia 5

JUBENILAK

Urbieta-Zinkunegi (Aur.-Saiaz) 22

Adiskide (Galdakao) 18

JUBENILAK, BANAKA

Ibai Arratibel (Aur.-Saiaz) 22

Bergara 14

22 URTEZ AZPIKOAK

Jon Jaunarena (Aurrera) 22

Uriona 3

SENIORRAK, BANAKA

Ion Ander Albisu (Aur.-Saiaz) 22

Gure Txokoa (Bera) 14

Frontoi Motzeko Emakumeen

Gomazko Paletako Kutxa Sari

Nagusia 2010

FINALA

Etchelecu-Arozena 27

Muneta-Serre 30

Zizurko Txapelketa

KADETEAK

Anartz Olano (Aurrera) 18

Garaio 1

Herrerako Txapelketa

KADETEAK

X. Jaunarena-M. Hernandezena 22

Hernan-Apeztegia 21

FUTBOLA

Nafarroako Erregional Maila

Aurrera Leitza - San Cristobal 2-0

SAILKAPENA

1. Ardoi (41p.); 2. Lagun Artea (40

p.); 3. Burlades (38p.); 8. Aurrera Leitza (27p.)

Erregional Ohorezko Maila

Trintxerpe- Tolosa CF 1-2

SAILKAPENA

1. Pasajes (51p.); 2. Zarautz (48p.);

3. Aurrera de Ondarroa (44p.); 4.

Tolosa CF (39p.)

1. Erregionala Igoera Fasea

Asoleus-Amaroz 1-3

SAILKAPENA

1. Allerru (22p.); 2. Lengokoak

(18p.); 3. Kostkas-Miren Bihotza

(15p.); 8. Amaro (7p.)

Intxurre-Hernani 3-0

SAILKAPENA

1. Irun (20p.); 2. Oiartzun (15p.); 3.

Sto. Tomas Lizeoa (14p);

6. Intxurre (10p.)

ARETO FUTBOLA

Nazional A Maila

Muriedas Urrutia-Lauburu KE 1-3

SAILKAPENA

1. Zierbana (48p.); 2. Zalatambor

Area 99 (47p.); 3. Elemental Peñu-

cas (43p.); 4. Lauburu KE (43p.)

Nazional B Maila

Trsp. Lakunza-Elorrio 5-10

Laskorain Ikastola-Goierri KE 3-2

SAILKAPENA

1. Laskorain Ikastola (48p.); 2. Ale-

rru Algeposa (45p.); 3. Concepto-

Creatch (41p); 10. Transportes

Lakunza (24p.)

TXIRRINDULARITZA

VII. Aiztondo Klasikoa

1. Victor de la Parte 3:33:26"

2. Eduard Prades +04"

3. Raul Alarcon +12"

4. Francisco Lopez +37"

5. Antonio Lopez +37"

6. Andres Vigil +37"

7. Javier Etxarri +37"

8. Jon Garate +37"

9. Esteban Mira +37"

10. Martin Iraizoz +41"

11. Juan Rienda +45"

12. Mario Gutierrez +50"

13. Miguel Lucena +50"

14. David Gonzalez +50"



Jende ugari elkartu zen herenegun Asteasuko helmugan. Bigarren sailkatu zen Eduard Prades irudian. HITZA

VII. Aiztondo Klasikoan Victor de la Parte nagusi

Txirrindularitza »

Zizurkilen hasi eta Asteasun amaitu zen lasterketan Adunak erabaki zuen proba.

ERREDAKZIOA

Caja Rural taldeko Victor de la Parte bakarrik heldu zen Asteasuko helmugara herenegun. VII. Aiztondo Klasikoa irabazi zuen txirrindulariak bigarrenari lau segundoko alde ateratzen zion. Eduard Pradesen atzetik, hirugarren postuan, Raul Alarcon iritsi zen 12 segundora. Alarcon bera da Espainiako Koparen lider berria. Ikusle-aldetik, helmugan batez ere,

jende ugari elkartu zen afizionatu mailako lasterketa ikustera.

Garaipen ikusgarria

De la Partek garaipen polita lortu zuen gure eskualdeko errepideetan herenegun. Aduna laugarren aldiz igotzen hasi zirenean Caja Rural taldeko txirrindulariak ihes egitea lortu zuen. 105 kilometroak aurkitzen zen gainetik bakarrik igaro zen eta modu horretan burutu zituen azken 31 kilometroak. Adunarakoigoera honetan, atzean 11 laguneko multzo bat osatu zen. Azken mendatean, Aleizan, Pradesek eta Alarconek ihes egitea lortu zuten atzeko multzo honetatik baina ezinezkoa suertatu zitzairen Victor de la Parte harrapa-

tzea. Amaieran beraz, bigarrenari 4 segundoko alde ateraz, Caja Rural taldeko txirrindulariak garaipen ikusgarria eskuratu zuen.

Kopako hirugarren proba

Zizurkilen hasi eta Asteasun amaitu zen VII. Aiztondo Klasikoa Espainiako Koparen baitan aurkitzen da, txapelketa honetako 3. lasterketa puntuagarria izaki. Orain arteko kontutan hartuta, Asteasun hirugarren iritsi zen Raul Alarcon da Kopako liderra, 118 puntuarekin. Bigarren postuan Lopez aurkitzen da, 98 puntuarekin eta hirugarren Vigil, 89rekin.

Hurrengo lasterketa Alcalá de Henaresen korrituko dute hilaren 14ean, igandean.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK
SPUTNIK DORREEN ONDOAN
ZURE BETIKO EHORZTETXEA
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40
ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900

G Gutunak

2010ean lan istripuz eraildako 16. langilea! Ask! da!

Joan den ostiralean, hilak 5, beste langile batek galdu zuen bizitza: 61 urteko langile lasartarra hainbat metrotatik erori zen, Errotalde Fabrensa industrigunean, Alegian.

LAB sindikatutik, lehenik eta behin, bere familiari eta lagunei gure dolumina eta elkartasuna adierazi nahi diegu.

Lan-istripuak ez daude zoriaren menpe, enpresarioen jarreraren menpe baizik, hauen eskuetan baitago enpleguaren kalitatean eta prebentzioan inbertitzea. Hauek dira, eta ez beste batzuk, horrelako gertaerak sortarazten dituzten faktoreak. Estadistika datu bat baino ez da, gero eta prekarizatuagoa dagoen lan munduan prebentzio falta eta baldintza txarrak ohikoak direla konfirmatzen duen datua.

Azken heriotza honekin, 16 langile dira jada Hego Euskal Herrian

beraien bizitza lanean galdu dutenak. Prekaritateak hil egiten du eta zoritxarrez beste behin ere ikus ahal izan dugu, lan baldintza prekariorako direla, lan istripu hauen faktore eta mugatzaileak. Baina ezin dugu ahanzi, administrazio eta instituzio publikoak, haien utzikeria eta sarraskeri honen aurrean duten ezintasuna, interes ekonomiko eta «bake sozial» antzua aintzakotzat hartuta, patronalaren interesen menpe, langileen osasun eta bizitzaren gainetik jartzten baitituzte.

Horregatik, LAB sindikatutik azken erailketa honen salaketa egiteko elkarretaratzea deituko dugu bihar, **hilaren 10ean, 12:00etan Alegiako udaletxearen aurrean.**

Ask! da! Eredu ekonomikoa aldatzera goaz! Lan baldintzek hil egiten dute! Erantzuteko garaia da! Lan istripurik ez!

Tolosaldeko eta Goierriko LAB sindikatuak.



laz bezala, aurtan ere ibarrek 'aperitive' txiki bat egingo dute Tote apaizaren. A. IMAZ

Xiberoan bi egunetan zer egingo duten zehaztu dute

Ibarra » Larunbatean abiatuko dira herriko plazatik Santa Engrazira; mendiaz, Maskaradaz, musikaz... gozatuko dute.

ERREDAKZIOA

Astebururako mendi irteera berri bat antolatu dute Ibarrrako Bai Euskal Herriari eta Haitzetan Raju Mendi taldeak, *Geurea Ikurriña!* lelopean.

Hilaren 13an eta 14ean, larunbatean eta igandean, Xiberoara joango dira mendi ibilaldi «eder» bat egitera. «Baina ez hori bakarrik, bertako kultura, gizartea, euskara, musika eta abarrez gozatzeko aukera ere edukiko dugu». Antolatzailerik irteera «politik» izango dela aurreikusten dute. Horregatik gonbidatu dituzte «denak».

Lo egiteko «kanpamendu basea» Santa Engrazi herri itipian kokatu dute. «Etxe bat eta ohe batzuk izango ditugun arren, jendea irteerila eta lo zakuak eramateko gomendioa egiten diogu, badaezpada ere».

Larunbatean 08:00etan

Ibarrrako plazatik larunbatean abiatuko dira, 08:00etan. Hau izango da «irteera ofiziala». Baina antolatzailerik esanetan, «nahi duenak ostiral arratsaldean, larunbatean zehar edo igandean bertan joan ahal izango da. Horretarako, apuntatzeko guneetan edo kontakturako zabaldu duten telefono zenbakian informatzea nahikoa izango dute.

Mendi irteera lehen egunetan egingo dute, hilaren 13an. Ibarrratik Xiberoara heltzean, gauzak etxean utzi eta mendira joango dira. 5 orduko ibilbidea egingo dute Elhujarra inguruan. «Behin bueltatxo eginda, dutxatu eta herriko osteratxo bat emango dugu, mendira joateko erabaki ez dutenekin batera. Ondoren, 19:00etan, afari-merienda antolatu dugu». Kasu honetan, janaria eta edaria antolatzailerik jarriko dute.

Iluntzean, 21:00etan, Xiberoako Ikastolen aldeko musikaldira joango dira, Atarratzera. Bertan Jean Michel Bedexagar eta Maddi Oyhenart kantari ezagunak emaldia eskainiko dute.

Igandean, gosaria antolatzailerik prestatuko dute, «eta aperitive baten ondoren», Atarratzetik gertu den Altzai herrian ospatuko den Maskarada ikusteko aukera izango dute.

Maskarada, Xiberoan herriz herri ospatzen den «inauteri-dantzaldi-jaialdi-antzerki... moduko bat da. Bertan urteko misterioak argitzen dituzte eta aurtan, antza denez, inguruko neska dezente haurdun geratu omen da, eta honen zergatia argituko dute Maskaradak pertsonai desberdinek; gorriek (txukun eta ordenatuek), beltzek (zikin eta lotsagabeek), jitoek...».

Aldez aurretik izena ematea «oso garrantzitsua da»

Antolatzailerik ondorengo gauzak ematea gomendatzen dute: «Zaku eta esterilak, larunbaterako bazkaritxo, ondo pasatzeko gogoa, eta antolatzailerik ez zuten pasta batzuk. Oso garrantzitsua da apuntatzea, horretarako bi aukera dituzte: Denak tabernan edo Sendi Ekintzan izena emanaz edo 652-715800 telefonora deituz».



Atsaureen inguruko argazki erakusketa zabalduko dute Aurreran. A. IMAZ

Atsaureen inguruan hainbat ekimen antolatu dituzte

Leitza » Hilaren 13an, larunbatean, argazki erakusketa zabalduko dute Aurreran elkartearen ganbaran, 18:00etan.

ERREDAKZIOA

Aurrera elkartearen ganbaran argazki erakusketa zabalduko dute hilaren 13an, larunbatean. Azken hiru urte hauetako Atsaureen kalejiraren inguruko argazkiak aur-

kituko ditu bertaragerturaztendek. Erakusketa 18:00etan zabalduko dute. Kalejiraren argazkiez gain, bideo emanaldi bat ere antolatu dute, Atsaureen irudiek.

Ekimen hauekin batera, bilera egingo dute bertan, aurtengo Atsaureen inguruko balantzea egiteko. Horretaz gain, garai bateko Inauteri buruz elkarrizketak egingen ari dira herritarren artean eta honen berri ere emango dute.

Hilaren 13an beraz, inauterizaleek zita dute Aurreran, 18:00etan.

Tolosako Bide Ertzean taldearen «bira txikia»

ERREDAKZIOA

Bide Ertzean taldeak «bira txiki bat» egingo du martxoaren bigarren hamabostaldian. Laukote moduan ariko dira Ubeda anaiek, Fran Iturbe gitarrak-jolea eta Karlos Aranzegi batera jotzailerak. *Leïdor Sessions* zuzeneko CD-DVDA plazaratu zuten Durangoko Azokan eta dagoeneko hasi dira lan be-

rrian izango dena prestatzen. Martxoko kontzertu hauetan, hainbat abesti berri eskainiko dituzte.

Lehen kontzertua hilaren 18an eskainiko dute Elorrioren, 22:30ean Ateneoan. Sarrerak aretoan bertan egongo dira salgai. Egun bat beranduago, 19an, ordu berean Eskoriatzan egongo dira.

Tolosa-Ibarra A taldea xakean Gipuzkoako txapel-dun

ERREDAKZIOA

Asteburu honetan hirugarren mailako Gipuzkoako Liga amaitu da. Tolosa-Ibarra bi talderekin hartu du parte bertan eta emaitza bikainak lortu ditu, izan ere, Tolosa-Ibarra A Gipuzkoako txapel-dun izan da.

